

AHALEGZNAK BILDUZ ETORKIZUNA LANTZEN

2001garren urtean, euskara...

AGURRA

Bi gertakari nabarmendu dira azken urteotan euskararen eta euskal kulturaren alorrean: Herrietako aldizkariaren ugaritzea, batetik; eta kultur sail ezberdinetako aldizkari berezien sortzea, bestetik. Euskalgintzaren garapearen eta normalbi-dearen adierazgarria da guzti hori.

Euskararen normalkuntza eta berreskurapen soziala arazo orokorra da: sail bateko ahalegin haundiena antzua edo erdi-antzua gerta daiteke, bestelako sail-etako ahaleginekin batera ez baldin badao.

Plangintza orokorra eskatzen du horrek. Oinarrian, beniz, sailen arteko etengabeko komunikazioa, koordinazioa eta elkarreragina eskatzen du.

Helburu horixe du EK Berriak aldizkaritxo honek: Euskal Kulturaren Batzarrearen beraren funtsezko helburua.

EKB osatzen duten talde, elkarte eta erakunde herritarren arteko komunikazio-tresna izango da.

Baina ez da barne-buletin soila izango. Euskalgintzako sail ezberdinetan diharduten guztiei dago zabalik, denen arteko "komunikabide" irekia izateko asmoz.

Zeuk duzu hitza. Euskarak du berria.

Paulo Agirrebaltzategi
EKBko Lehendakaria

Eskutan duzun "EK Berriak" argitalpena, Euskal Kulturaren Batzarrea osatzen duten talde eta elkarteentzako barne informazioarako baliagarria izan daitekeen aldizkaria izan nahi du.

Ale bakoitzean EKB barneko informazioa eta ekintzen berri emateaz gain, euskalgintzan eta euskal kulturaren barrena gauzatzen diren gertakizunen aldiro berri zuzena eskaintzeko jaio da.

SUMARIOA

- 2 - Elkarlanerako proiektu bat.
- 3 - Aurrera begiratzeko.
Andoni Sarriegi
- 4 - Ahaleginak bilduz etorkizuna lantzen.
- 5 - Funtsezko okerrak.
- 6 - Euskaltegiak elkarlanean.
- 7 - Gazteen euskara gaztea.
Xabier Kintana
- 8 - Publizkuntza/91.